

Eguerdi on guztioi:

Arrasaten gaude, Debagoienan, euskal kooperatibismoaren bihotzean.

Hemen hasi zuen aita Arizmendiarrietak bere proiektua, hemen jarri zuen hazia.

Idea argi batekin: pertsona eta honen duintasuna.

Pertsona zuen bere jardueraren muina eta ardatza.

Bere lana gidatu zuten balioak: humanismoa, lankidetzeta eta justizia soziala izan ziren.

Gure alderdiarentzat ezagunak dira balio horiek.

Justizia soziala, berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna izan baitira gure motorrak.

Pertsona helburu.

Beti xede batekin: herri honen, Euskadiren garapen politikoa, ekonomikoa eta soziala lortzea.

Horretan aritu gara buru belarri berrogei urte baino gehiagoz.

Eta aurrera egitea lortu dugu.

Euskadik aurrera egin du eta aurrera egiten jarraitzen du.

Noski baietz!

Batzuk Euskadiren irudi negatiboa aurkezten saiatu arren, datuak burugogorrek dira eta hor daude:

- Milioi bat pertsona baino gehiago lanean eta kotizatzen
- Biztanleko barne-produktu gordina Europako batez bestekoaren gainera
- Berrikuntzan Europako batez bestekoa gainditu dugu
- Pobrezia-arriskuaren tasa Europakoa baino sei puntu txikiagoa
- Berotegi-efektuko gasen emisioak behera urtez urte
- Eskola uztearen tasa minimo historikoetan
- Giza garapenaren indizean, Euskadi munduko lehen 15 herrialdeen artean dago.
- Bakea eta bizikidetzari buruzko aurrerapenak hor daude
- Euskadi instituzionalizatu dugu

- Aurrera egin dugu gure herriaren nazio-izaera aitortua izan dadin

Hori da errealitatea eta ez beste bat.

Ez dugu ukatzen hobetzeko esparruak daudela.

Jakin badakigu pandemiak gure herrian eragina izan duela, gure inguruko herrialdeetan bezala, eta oraindik ondorioak jasaten ari gara.

Baina hortik erakundeak gainbeheran daudela esatera amildegi bat dago. Ez da egia.

Ez dut irakurketa katastrofista interesaturik onartzen.

Eta are gutxiago hori hamarkadetan oztopoak jartzen aritu direnak esaten dutenean.

Egi berdaderoa honako hau baita:

guk eraikitzen genuen bitartean beste batzuek suntsitu egiten zuten. Bai, suntsitu egiten zuten.

Erabaki estrategikoetan asmatu dugu.

Erakundeak eraiki ditugu.

Eta gure onena emango dugu eredugarri izaten jarrai dezaten.

Katastrofismoaren, populismoaren eta individualismoaren aurrean, herri gisa jardutea proposatzen dugu.

Komunitate-balioetan oinarritutako proiektua eskaintzen dugu, aurrera egiten jarraitzeko.

Gure ibilbideak bermatzen gaitu.

Ilusioa eta indarrak berrituta ditugu erronkei aurre egiteko.

Gure osasun-sistema, hezkuntza-sistema eta gizarte-ongizatearen sistema indartzen jarraituko dugu.

Etxebizitza-beharrei erantzuten jarraituko dugu, guztientzat eta batez ere gazteei begira.

Trantsizio energetikoari, digitalari eta sozialari aurre egiten jarraituko dugu.

Horretarako gure formula jakina da.

Ekonomia indartsua bultzatzea, kalitatezko lana sortzeko eta gizarte-aberastasuna eragiteko.

indar berria



Gure gizarte-ongizateko sistemaren iraunkortasuna bermatzeko.

Eta eskema horretan, enpresa funtsezko eragilea da.

Langileek eta enpresaburuek osatutako enpresa.

Balio ekonomikoaren sorrera eta balio sozialarena uztartzen dituen enpresa.

Aita Arizmendiarrietak proposatzen zuen bezala.

Gure proiektua ez da edozein proiektu.

Proiektu abertzalea da.

Ongizaterako eta aurrerapenerako burujabetza-proiektua.

Ezeren eta inoren mende ez dauden gizon eta emakumez osatutako herria eraikitzeko.

Hori da gure eskaintza.

Herri honen nazio eta gizarte eraikuntzan aurrera egiten jarraitzea.

Euskal herritarrok askatasun, justizia, berdintasun eta elkartasun idealak gauzatu ahal izan ditzagun.

Egin dugu eta egiten jarraituko dugu. Elkarlana, esfortzua, konpromisoa eta bikaintasunez.

Gora Euskadi askatuta!